Espediente-zenbakia: 2021035 harmonizatua
Kontratazioaren xedea: Eraldaketa Digitaleko Saileko laguntza-programetako proiektuen ebaluazio-zerbitzuak eskaintzeko Esparru Akordioa.
Dokumentua: Preskripzio teknikoen plegua.

1. Sarrera

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak (aurrerantzean, SPRI) Euskadiko Autonomia Erkidegoko enpresa-egiturari bideratutako laguntza-programa ugarien kudeaketaren ardura du bere gain.

Laguntza Programak kudeatzeko, SPRIk Espedienteak Kudeatzeko Sistema du (SGEES), SPRIren ardurapeko laguntza lerroetako espedienteak modu automatizatuan izapidetzea ahalbidetzen duten tresna multzoz osatuta.

2. Kontratazioaren helburua

Kontratazioaren helburua Eraldaketa Digitaleko Saileko programetara aurkeztutako proiektuen ebaluazio tekniko eta ekonomikoa ebaluatzea da.

3. Zerbitzuaren iraupena

Proiektuko jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan gauzatuko dira.

Esparru Akordioaren iraupena 2 urtekoa izango da kontratua sinatzen den datatik hasita. Preskripzio teknikoen plegu honetan ezarritako prozedurari jarraituz, eskaintza onenari emango zaizkio proiektuak.

4. Abian jartzeko epea

Proiektuko jarduerak lankidetzako esparru akordioa sinatu eta hurrengo egun baliodunean jarriko dira martxan.

5. Garatu beharreko jarduerak

Kontratuaren esleipendun izango den enpresak SPRIri honako laguntza-programa hauetan aurkeztutako proiektuen ebaluazio tekniko eta ekonomikoa egiteko zerbitzuak eskaini beharko dizkio: Industria Digitala, Zibersegurtasun Industriala, Adimen Artifizial Aplikatua, eta datozen ekitaldietan zehar abian jar litezkeen beste laguntza-programa batzuk, betiere, EUSKADI 2025 ERALDAKETA DIGITALAREN ESTRATEGIAren jarduera-eremuekin lotuta badaude, baita Next Generation EU ekimenaren baitan baliabide espezifikoak esleitzearen ondorioz sor litezkeen beste programa berri batzuk ere.

Honako alderdi hauek baloratu beharko ditu:

A. Enpresaren eta haren jardueraren ezaugarriak. Mikro, txiki, ertain edo handi sailkapena. Egiten duen jarduera eta JEZ eta EJSN sailkapenean duen katalogazioa.

B. Aurkeztutako proiektuaren eta dagokion laguntza-programaren oinarri arautzaileekiko haien egokitasuna ebaluatzea.

C. Aurkeztutako proiektuaren eta dagokion laguntza-programaren oinarri arautzaileekiko egokitasuna ebaluatzea. Zuzena den adieraziz edo dagozkion aldaketak eginez.

D. Likidazio-eskabideak, memoria tekniko eta ekonomikoak berrikustea.

Ebaluazio-txostenek kalitate-irizpide hauek bete beharko dituzte:

- Argitasuna. Edukiak modu argian azaldu beharko dira, azaldu nahi den horren inguruko zalantzak sor ditzaketen zehaztugabetasun edo lausotasunik gabe.
- Garrantzia. Txostenak egiaztatutako gertaerak eta ondorioak ezagutzea ahalbidetuko luketen elementuak jaso beharko ditu.
- Laburtasuna. Ebaluazio-txostenaren edukia modu zehatz eta laburrean garatu beharko da, egiaztapenak, ondorioak eta gomendioak ulertzeko erabakigarriak ez diren xehetasunak jaso gabe.
- Koherentzia. Ebaluazio-txostenean jasotako iruzkinek egiaztapena, ondorioak eta gomendioak ulertzea ahalbidetuko luketen gai ugariak jaso beharko dituzte orokorretik zehatzera bideratuta. Hala, ebaluazio-txosteneko edukiaren D puntuan jasotako beharrezko baliabideekin bat etorri beharko dute proposamenek.
- Zorroztasuna. Edukiak modu zehatzean azaldu beharko dira, egiaztapenen balioa bereizteko beharrezko elementu guztiak barne, eta behar bezala justifikatuko dira adostutako ondorioak.
- Linguistikoak. Hornitzaileak Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) zerbitzua eman ahal izatea bermatu beharko du.

Aipatutako irizpide horiek kontratua behar bezala exekutatzeko nahitaez bete beharreko elementu gisa konfiguratzen dira.

5.1. Zerbitzuaren dimentsionamendua

Informazio gisa, egitasmoaren azken urteko daturik esanguratsuenak azalduko ditugu jarraian. Esleipendunak esleitutako proiektu guztiak ebaluatzeko betebeharra izango du, eta, dagokionean, SPRIk ezarritako epean egin beharko du, eta SPRIk emandako aplikazio informatikoak erabili beharko ditu. Honako estimazio hauek egin dira, baina ez dira lotesleak kontratua exekutatzeko:

- **Industria Digitala**: 450 proiektu. Ebaluazio-aldia maiatzetik azarora.

- **Zibersegurtasun Industriala**: 250 proiektu. Ebaluazio-aldia maiatzetik azarora.
- **Adimen Artifizial Aplikatua**: 100 proiektu. Ebaluazio-aldia uztailetik azarora.

6. Zerbitzu hau egiteko esleitutako langileei eska dakizkiekeen baldintzak eta gaitasunak

Honako hauek dira zerbitzu hau egiteko esleitutako langileei eska dakizkiekeen baldintzak eta gaitasunak:

- Proiektuaren arduradun nagusi gisa eta SPRIren Eraldaketa Digitaleko Sailaren ordezkariarekin hizketakide gisa jardungo duen pertsona izendatzea, horrelako lanetan nahikoa esperientzia eta ezagutza izango duena. Bere taldeak egindako ebaluazio-txostenak gainbegiratzea eta homogeneizatzeaz arduratuko da, honako baldintza teknikoen plegu honetako 5. atalean deskribatutako eta eskatutako kalitate-eskakizunak betetzen dituztela bermatuta.
- Ebaluazio tekniko eta ekonomikoko txostenak egiteko esleitutako langileek EIKTak txertatzen dituzten proiektuak ebaluatzeko gaitasun tekniko eta esperientzia nahikoa izan beharko dute, eta enpresa esleipendunaren mende egongo dira modu esklusiboan.
- Enpresa esleipendunak ezingo du programako laguntzetako eskatzailearen hornitzaile gisa jarduten duen proiekturik ebaluatu.

Kontratura atxikitako langileak esleipendun enpresaren menpekoak izango dira. Inolako kasutan ere ez dute izango Eusko Jaurlaritzarekiko, SPRIrekiko eta/edo haien parte diren elkarteekiko lan-, kontratu- edo funtzionario-harremanik, ezta beste edozein motatako harremanik ere, ez kontratuak irauten duen artean, ez amaitzean.

7. Ikuskapena eta zerbitzuaren kontrola

Kontratu bakoitzerako proiektura esleitutako pertsonen dedikazioa hilero proiektuak eskatutakora egokituko da, SPRIk ikuskatuta, inola ere kontratuaren balio zenbatetsia gainditu gabe.

Proiektuko lantaldeak egindako lanak SPRIren Eraldaketa Digitaleko Sailak ikuskatuko ditu zuzenean, eta kontratatutako lanen garapen egokia egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen azalpenak eta informazioa eskatu ahal izango ditu.

8. Esleipendun homologatuen artean eskaerak izapidetzea

Lizitazio honetan sartutako eskaerak honela izapidetuko dira:

SPRIk homologatutako lizitatzaile guztiei bidaliko die eskaintza-eskaera, edo dagokienean, SPKLren 221.6.a) artikuluaren arabera dagokion lizitatzaile kopuruari, eta bertan zehaztuko ditu, behar berezien arabera, eskaintza-eskaera jakin bakoitzerako aplikagarri diren esleipen-irizpideak.

Eskaintza-eskaera horrek honako hauek jasoko ditu: oinarri-kontratuaren helburua, gehieneko balio zenbatetsia, eskaintza aurkezteko gehieneko epea eta oinarri-kontratuaren esleipenean aplikagarri diren irizpideak.

Oinarri-kontratuen lizitazioan, ordukako tarifak (prezioa/orduko) edo eskainitako prezioak, dagokionean, ezingo dira izan esparru akordioaren lizitazioan esleipendunak eskainitako gehieneko balioak baino handiagoak.

Hala, SPRIk eskaintza ekonomiko onenari edo, dagokionean (bestelako alderdirik baloratuz gero), eskaintza-eskaera jakin bakoitzerako aplikagarri diren irizpideen arabera balorazio onena jasotakoari esleituko dio oinarri-kontratua.